

U Z T A
(R. Tagore)

13

Zirkin egitea, Lagun bidazti, zu pitean aur-
kizea da, zure oiñen eragiñera kantatzea nos-
ki. Ur-ertzez ibiltean ez da gordetan zure ar-
naseak ikutzen dauana, bere ontzi-oialak bu-
lartsu aizetara zabaldurik, olatu nasi zirimol-
tu gainez zaldi antzera txirrist egin baiño.

Ateak diran bestean edegi ta kanpora doa-
nak zure agurra artu daroa. Eta bidean ez da
gelditzen bere irabazia kontatzen, ez bere on-
damendia negartzen, bere biotza taupa-taupa
truntxun durundutsuaren antzera nabari izan
baiño; zugaz doa, ba, Lagun bidazti, ibilli ta
ibilli.

14

Mundu onetan bear neban zorion-zatia zure
eskuak emongo eustiela, agindu zeustan. Zure
argiak origaitik dizdiz dagi ene malkoetan. Eta
bildur naz besteakaz joaten, ni zuzentzeko zain
zaukadazan zurkulutik zu ikusi bage igaroko
ete nazan.

tuekaz bakar-bakarrik bat ete dator? Jausiaz doan olatuaz be ez ete dau abesten?

Ene Erregeak zapaltzen dauan oin-zapla bitxiz eundurik dago; baiña ba-dira sokil apalak aren ostiko-igurtziaren begira, arterik, dagozanak.

Jakitun ta andiki, gitxi dira nire Jaunaren ondoan ezarrita dagozanak; baiña Bera bere gogoz txiro danaren billa etorri da, eta, bere besoetan arturik, bere jopu egin dau beti-betiko.

4

Gaur goizean, itxartzerakoan, bere eskutitza aurkitu dot. Ez dakit zer diñoan, irakurten ez dakit-eta; jakitunari ez naiako gogaikarri izango bere liburuen bakartadean; arek be, ba, bear bada eztau ulertuko diñoana.

Itxidazu neure bekokiaz estutzen, neure biotz ondoz laztantzen! Gaua ixilleratu ta izarrak banan banan urteten asteen, neure altzo gainean edegiko dot eta ixil-ixillik egongo naz. Orri adialariak ez daustie irakurriko abots zoli, erreka astrapalariak abestuko daust geldika, ta zazpi izar jakintsuak zerutik otolztuko daustie.

Ez dot aurkitzen billatzen dodana! Ezin dot ulertu gurako neukena! Eskutitz onek, alan be, irakurri barik, neure kargatik arindu nau ta bururakizunak abesti biurtu daustaz!

5

Esku bete autsek gorde leikedan zure kiñua aren zentzunik nik ez neklala. Orain, gela dakidala, len gordeten eustan edozetan irakurri daroat bera.

Lore-ostoz margoztuta dago, olatuak bitxiparretan dizdiratzen dabe, mendiak euren gainllur gainetan jasoten dabe.

Nik begiratzen ez neutzulako, itzulletara sekurten nebazan izkiak, letrak, eta enekian arein ixilpekoa.

6

Bideetan zear, galdua nabil. Ura zabal ta uru-ortzia urdin, ezaugarri bage, bidea txoriago. Izar-izpiz, aro bidaztien lorez estalduta dagoanean zear!
Zure odolak, biotz, bide ikusi-eziñaren jaituria ete daroa?

7

Nire etxea ezta, onezkero, niretzat etxe! Ezin dot gelago! Ba-noa; Ez-ezagun betikoa deiez daukat bidetik!

Zelan minduten nauan aren oin-otsak, neure bularrean durunduz! —Ta aizea, jagi doa, ta itxasoa espaka dago!

Begoz or geldi nire zalantzak, nire ardurak! Ni ba-noa sukalde bako izgoraz; Ez-ezaguna deiez daukat, ba, dagoneko bidean zear doala!

8

Gertau zaitez joateko, ene biotz, goiz-zeruan zeure izenez deitua izan zara-ta! Begoz geldi besteak, orrela nai ba'dabe; baiña zu etzaitez egon iñoren zain!

Gau-iruntzez da min lore-kolkoa, baiña lora edegiak argiari deadar: «Askatasun!» Ler egizu zeure bularra, ene biotz, eta urten!

9

Nagitasunak neure ondasunen meta erdian euki nindunean, jaio zan igaliz, frutuz, itzalean, janaritzen dan txitxare edo ar baten antzera nintzan ni.

Ez, ez, ustel-giltzape; ez dautsot itzul-inguru gelago egin nai neure atsedean lizun-geunduari! Utikan neure bizia eztan guztia, bai ta neure irribarrea balzen arriña eztana be; gartzaro betikoaren atzetik noa!

Eta egunetan zear nabil aringa; ta neure biotzaren burdian alderrai doa olerkaria, dantzari ta kantari.

10

Eskutik artu ninduzun, eta zeugaz eroanik, errege-aulkian jarriazo ninduzun, gizasemeen aurrean. Plzkaka, izukor egin nintzan, jardunerako geldo, biderako ezgauza. Danean ezmeztan tenik bage, pitean bein neure buruaz liskar gogorak nekazan, giza-alderakoan arantzarik zapaldu ez naia.

Arria goitik, irain-tanborrak ots, eta nire aulkia irauli zan, apaletsia, autsean. Azke, azkenik be! Bideak, zabal nire aurrean; nire egoak, zeru-leraz gainezka! Gau-erdiko izar alderraiakaz noa, sakontasun illunean murgiltzera! Udako odeia ekaitz-aldian lez naz nibe urrezko koroia kendu ta, oiñaztuaren katean, ezpata bai'litzan, oiñaztarria dindil jartzen dau! Zure azkenengo ondo-etorrira, zelako poztasun etsiz noan arriñeketan, nardatu ta ezetsien bide autsez betean zear!

Umeak bere ama aurkitzen dau, onen sabeletik urtetean. Orain, zugandik aldenduta nagoa-la, zure etxetik jaurtia, nik bai ederto zure arpegia ikusten!

11

Ene kate onek, neure lepotik barre egiteko baiño ez nau apaintzen bere bitxiakin. Saman daukadanean, min emoten daust; kendu nai

118

dokadanean, ito egiten nau. Eztarritik oratu ta bestia ito-erazten!

Esakura, Jauna, emon al ba'neutzu beñik-ekin, ni bai nasai geratuko nintzakela! Ken egidatu Zeuk, eta apain-girgillez lotu-azo; lotsa zure begi aurrera urreratzen, bitxizko kate ta saman dodala!

12

Jumina an ondo-ondoan ebillen, arin ta garbin Golan, betuxu, aitz ebagiak jasoten eban bere betoskoa. Ta orlegitasun illunezko mendak ur-ibilli ta ixurkiz orbanduak, inguruan biltzen ziran.

Govinda, seike maixu andiak, idazti deunak makurtzen ebazan, aitz-gaiñean jesarrita; bihurtzean, Raghunath, aren ikasleak, bere abenturatsunez arro, aganaiño eldu ta, makurturik, eman eutson: «Bezua kaskar bat dakartzut, nik artzeko aiñakoa eztana». Ta bere Maixuarean aurrean urrezko ta arri bikaiñez besaki bihurtu ebazan.

Maixuak biotatik bat artu ta bere atzean bir-azo eban; eta arriak argizko geziak jaurtzen ebezan. Onetan besakiak atzamarretik jurtzen eutson, eta, atxean beera jauzika, uretara jausiko yakon.

Raghunath, garrasi egiñik, ibaian murgil. Maixuak liburura biurtu ebazan bere begiak. Eta urak, bere ostua atxillo gorderik, lengo bihurtu ekin eutson.

Raghunath, neketua ta busti-bustia, Maixuarean itzuli zanean, eguna noiz amaituko egoan. Lela bizitan esan eutson: «Besakia nun jausi dan ba'diñostazu, oindiñokarren aurkitu daitet, bear bada».

Maixuak, beste besakia artu ta uretara jaurtirik, erantzun eutson: «Antxe!»

A. O.

119

Neure naitara ba-noa ta ba-nator neure bi-
dez, ene zorakeriak zu igitu arte neure atera
zu urreratzeko; mundu onetan bear neban zo-
rion-zatia zure eskuak emongo eustiela, zuk
agindu bai zeustan.

15

Zure itza bai lau, ene Maixu, ta ez zutaz min-
tzatzen diranena! Zure izarren abotsa tu zure
zugatzen ixilla, nik bai ondo ulertzen! Eta nire
blotzak lora baten antzera edegi gura leukela
ba-dakit, bai ta nire bizitza iturri ezkutu ba-
ten bete dala be.

Zure abestiak, lurralde bakar edurtuko txo-
riak lez, egaz datoz neure blotzean abi egi-
tera, jorrail beroa eldu-ala. Urte-aro pozga-
rriaren zain doatsu nozu!

16

Areik ba-eklen bidea, ta zure billa joan zi-
ran bitxidior estutik zear; nik ez nekian, baiña,
ta andik urtenda, arat-onat jarri nintzan gau-
aren altzoan.

Illuntasunean zure bildur izaten erakutsi
eustielako, zure ate-aurrean aurkitu nintzan,
nundit eta zelan ez nenkialarik. Jakitunak agi-
raka egin eusten, eta poateko aurrera, ni ez
nintzala etxaide tzarretik etorri-ta. Ba-niñolan
ni zalantzak joa, baiña Zuk gogor oratu ta
bertan geldi-azo ninduzun.

Ta arein akar-egin bearra gero ta latzagoa
zan.

17

Neure lupetzezko kruselua eskuan nebala,
arek urtenda, deadar egin neban: «Erdue
arene semeak, neuk argituko dautzuet
neba!».

«Gana illun egoan oindiño, ta ni itzuliz nen-
bala!»
«Nire bide ixilletik, oiuka: «Argi egidazu, Su;
ne lupetzezko kruselua ausirik dago, ba, au-
rean!».

18

Ez, zuk ez dakizu kuskuak zabal-azo ta lore
biurtzen. Astindu, jo egin oi dituzu..., baiña
zure mende ez dago areik lore biurtzea. Zure
eskuak loitu bai egiten dauz, ostoaak urratu,
atsean zarpaildu...; ez dautse, ostera, iñun-
tiko margorik, ez usaiñik ateratzen.

Al, zuk ez dakizu kuskuak zabal-azo ta lore
biurtzen!

Errez bai dagiala ori, lore-kuskuak edegi al
dauzanak! Begiratu besterik ez, ta bizi-izerdla
ostoen zan-gorri zear dabil. Arek bere ao-ar-
nasaz ikutzen ditu, ta loreak egoak zabaldu ta
eguratsean egaz dagi; eta, biotz-iskiak lez, go-
ri-gorri urtetan yakoz margoak, kolore bi-
ziak; bai ta aren usaiñak salatu be ondo be
ondo bere ezkutu-toki gozoa.

Al, lore-kuskuak zabaltzen dakianak, errez
ta lau dagi ori!

19

Sudas, baratze-zaiñak bere ur-maeletik artu
eban negu-galpenetik geraturiko azken-lotua,
ta Erregek erosi nai ete eutson ikusi naiean,
aren jauregiko atera joan zan.

Bidazti bategaz aurkitu zan ara eitzerakoan, eta arek esan eutsen: «Zegan saltzen daz-lazu azken lotu ori, Buda, gure jaunari sakin-tzera noa-ta?».

Sudas'ek erantzun eutsen: «Urrezko maxa baten itxiko dautzut».

Eta bidaztiak emon eutsan. Errege, ain zuzen, orduantxe urten zan jau-regit'k, Buda gure jauna ikustera joateko, an-tza, ta bururatu yakon: «Eder bai neguko lotu-
au aren oiñetan jartea!». Ta lorea erosi nai izan eban.

Lora agaitik urrezko maxa bai emon eutsan baratze-zainak esan eutsonean, Erregek amar eskini eutsosan; bidaztiak, baiña, dirua bikotatu egin eban orduan.

Baratze-zain zekenak, biak lotua eskini nai eutsonean baiña gelago emongo eutsola aste izan eban, eta, makurturik, esan eutsan: «Ez dakel lorea saldu».

Urko arresiz kanpo zabaltzen dan mangulaneko ixiltasun ilunean, Sudas zutun-egoan Buda gure jaunaren aurrean, onen espanak, barriz, maitasunezko ixiltaren auki dira ta bakea darie begiak, intzez aratz dan udazkeneko goiz-izarraren antzera.

Arpegira so egin ondoren, oiñetan ipiñi eutsen lotua, ta bekokia eratsi eban beera aulcean murgiltzerañño.

Buda'k, barre antzean, esan eutsen: «Zer nai dok, ene seme?».

Eta Sudas'ek erantzun: «Zeure oiñen txerarik leunena».

Gau, Gau estali, egin nagizu zeure olerkari!
Gizaldien gizaldiz zure gerizapean ixillik jarri

zeure gaitien abestiak oiukatzen itxi eizazu,
Munduz mundu ixillik dabillen zure
bako burdira jaso nagizu, zuk, aldiaren
erregi, illun eder zarean orek!
zenbat adimen jorantsu sartu dan mutua
zeure irrañean, eta zure kruselu bako etzean
zeure illi, zuri itaunka! Ez-ezagunaren eskuak
zeure zulozuriko zenbat blotz lertu di-
zeure itzala oiñarrietariño astintzen eben
oiñetan!

Ez nagizu, Gau, arima esnatu onein oler-
kariarren argitara, beingo batez aurkitu da-
zeure undasuntegia zurturik begiztatzen daben
zeure onein olerkari; zure ixiltasun barre-odu-
zeuren olerkari, Gau!

Bai, egunak euren aita nagiz niri bidea asal-
ta arren, ni neure Bizitz barrenkolaz ido-
skolatatu, neure bizi barruan gordetzen dan
kutsaun orregaz. Batzuetan erdi-ikusi ditut
eure dizdizerak; eta inoizka aren arnasaufak
jari dabe, unekada batez, usaintsu ene goga-
nea.

Bai, kanpotiko poztasun ori, argiaren zapiak
ezutatzen daustan ori idoro bear dot nik. Eta
piñezkako bakartadean eragiko naz, gauza
puziak euren hortzailleak dakusan lez, ikusiak
izan bakartadean!